


# Ikasi Elkartasuna



ALBOAN

ALBOAN Jesusen Lagundiak  
sustatutako fundazioa da



JUSTIZIAREN

GARAIA DA



*"Gose denari zeure ogitik ematen diozunean eta aterperik ez duen behartsua etxean hartzen duzunean, biluzik dagoena jantzi eta zeure gizakideari laguntzarik ukatzen ez diozunean, orduan, goizargiak bezala egingo duzu distira eta zure gaitzak berehala sendatuko dira."*

Is 58, 7-8

EZIN BAITU

ZORTE-KONTUA IZAN



BIZIAREN ALDE

EGITEN DUGU APUSTU

LORTZEN DUGUNA



- Pertsona libreak eta nor bere buruari eta ingurukoel laguntzeko gaitasuna dutenak.
- Pobreenen zerbitzura dauden eta lanean jarraituko dutela ziurtatzen duten erakundeak.
- Giza duintasuna guztiontzat.
- Mundu bidezkoago bat non guztioik geure ekarpenak egineta parte hartu ahal izango dugun.

ALBOAN Iparraldeko eta Hegoaldeko erakundeak eta pertsonak elkartu diren plataforma da, eta, elkarbanatutako esperientziak baliatuz, gizartea eraldatzea dute helburu giza garapena, bizitza duina eta justizia pertsona ororen ondare izan daitezen.



Bizkaiko Foru  
Aldundia

Diputación Foral  
de Bizkaia



Compañía de Jesús  
Loiola FUNDATZIOA




ALBOAN

# Ikasi Elkartasuna



MUNDUKO  
ARAZOAK




"Gure gizartea eraldatzeko eragile izan behar dugu, egitura bidegabekoak aldatzeko aktiboki lan eginez".  
(Valentzia, 1973. Ikasle ohien X. Kongresua).

"Ez dago zereginik, ezer ezin da aldatu" behin eta berriz esaten zaigun arren, guztiok dugu gaitasuna gauzak bestelako bihurtzeko.



Inda Argaitia ALBOAN.



Sabai berdinaren babesa. Hegoa.

## "Pentsatu orokorrean eta jardun tokian"

Egiten dugun guztiak (jaten, gastatzen, ondo pasatzen dugunean) nolabaiteko eragina du besteengan, haien oso urrun egon arren. Eguneroko bizitzan gure ekintzekin arduratsuak bagara, gauzak aldatzen lagun dezakegu.

## Badakigu zein eragin duten gure eguneroko portaerek beste pertsonengan?

Elkartasuna bizimodu berri batetik, norberaren beharrak asetzetik eta gainerakoekin harremanak izatetik sortuko da.

Ez dago zalantzarik: zerbaitegin dezakegu.

## Iparretik Hegorako elkartasunaren adibide bat



Loli, Peio, Arantza, Javi... Pertsona-talde bat Donostiako erdigunean manifestatzen ari da kanpo-zorra barkatzeko eskatzeko. 1998an zapalkuntza-mekanismo horren aurka nazioarteko kanpaina hasi zenetik, munduko agintariak beren bileretako gai-zerrendan sartzen dute. Baina oraindik ez dute konponbide zuzenik eta behin betikorik eman. Kanpo-zorra oraindik ere heriotzaren sinonimoa da leku askotan. Gure erantzukizuna da biziaren alde borroka egitea.



Diputación Foral de Bizkaia





Compañía de Jesús  
Loiola Prácticas



ALBOAN

*baina ... zuk zeuk zer egin dezakegu?*

# Ikasi Elkartasuna



“Baliabide naturalak eta ingurumeneoak ustiatzek bizitza-kalitatea txikitzen du, kulturak hondatzen ditu eta pobreei miserian gorrian uzten die”.  
(KO 34, d. 3).

## Ingurumenaren degradazioa eta haren eragina herrialde pobreenetan

<b>Uraren poluzioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3. munduan erabiltzen diren uren % 90 ez dago tratatuta.</li> <li>• 5 milioi lagun hiltzen dira urtero beherakoagatik eta disenteria-gatik.</li> </ul>
<b>Airearen poluzioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 3. munduko 2,2 milioi lagun hiltzen dira arnasa hartzeko arazoengatik, bihotzeko eta biriketako gaitzengatik eta minbiziarengatik, industriako emisioek, ibilgailuen isuriek eta etxeetan erregaia erretzeko eraginda.</li> </ul>
<b>Etxeetako hondakin solidoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gehitzen jarraitzen dute mundu osoan.</li> <li>• 3. munduan hondakin solidoen % 20 eta % 50 artean ez da biltzen.</li> </ul>
<b>Industria-hondakin arriskutsuak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Asiako ibaien berun-kantitatearen batez bestekoa, herrialde industrializatuakoen alderatuta, 20 aldiz handiagoa da.</li> <li>• Arrantzatokiak mehatxatzen dituzte. 100 milioi pertsona bizi dira arrantzari esker.</li> </ul>
<b>Lurzoruaren degradazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Landu daitekeen lurra murrizten dute eta horrek nekazari pobreenei eragiten die.</li> <li>• Jendea ingurumen-errefuxiatu bihurtzen du lur aberatsen bila.</li> </ul>
<b>Deforestazioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baso tropikalek beren hedaduraren % 60 galdu dute mende honetan.</li> <li>• Jendea pobreena bizibiderik eta sendagairik gabe uzten du.</li> </ul>

Giza Garapeneren Txostena. GNPB 1998.



Guatemala, Argaskia ALBOAN.

- Ingurumenaren degradazioa eta hondamena jendeak gehiegi edo oso-oso gutxi duenean gertatzen da.
- Karbono dioxidoaren % 70 eta industria-hondakinen % 68 herrialde industrializatuetan isurtzen dira (biztanleriaren % 20).
- Gure bizimoduak ez du luzerako balio, ezta planetako biztanle guztiarentzat ere. Gainera, gizatiarragoak, pertsona hobeak bihurtzen gaituela uste dugu ala?
- Pobreek egoera hobean daudenean baino gehiago sufritzen dituzte ingurumen-kalteak, kalte horietatik babesteko gaitasun gutxiago dutelako.
- Munduko biztanle pobreenetako 500 milioi biztanle ekologikoki baztertutako gunetan bizi dira.
- Ingurumen-kalte munduko pobrezia-eragile garrantzitsua da, eta desberdintasuna handitzen du.

## Adibide bat: otarrainxkak pobreen aurka



Ipar – Hegoa marrazti-bilduma.

1996. urtean bakarrik Thailandiak 235 mila tona otarrainxka esportatu zituen Europara eta AEBetara. Otarrainxken hazkuntzak bi onorio ditu pobreenengan:

- Otarrainxkak ekoizteko arrain fresko asko behar da, tonak eta tonak: pobreei prezio baxuko proteina nutritiboko iturri baterako aukera ukatzen zaie, arrain-eskasia baitago.
- Lurzoru emankor asko elkor bihurtzen dira, aberatsek eta multinazionalak otarrainxkak ekoizteko erabiltzen dituzten arrain-granjen eraginez gazitu egiten baitira. Hala, pobreek ezin dituzte oinarritzko elikagaiak eskuratu.



Bizkaiko Foru Aldundia  
Leizolaia  
2011



Diputación Foral de Bizkaia  
2011

Compañía de Jesús  
Loiola

PROBESIA



ALBOAN

Ingurumena • Ekologia

# Ikasi Elkartasuna



“Nahi dugun gizarte berria ez da soilik gizabanako bakoitzak gauza gehiago izango dituen gizartea, baizik eta gizabanako bakoitzak gizaki gisa gehiago garatzea lortuko duen gizartea”.  
(Apostolutza sozialari buruzko gutuna, 1966).

## Kontsumo-maila

Ikus dezagun produktu batzuen kontsumoan zenbateko aldea dagoen munduko aberatsenen % 20aren eta pobreenen % 20aren artean

	aberatsenen % 20k kontsumitzen du ...	pobreenen %20k soilik...
Haragia eta arraina	%45	%5
Energia	%58	%4
Telefono-lineak	%74	%1'5
Papera	%84	%1'1
Ibilgailuak	%87	%1

Giza Garapeneren Txostena. GNPB 1998.

- Kontsumoa gizakien zenbait premia betetzeko bitartekoa izan daiteke.
- Azken urteotan kontsumo-zifrak izugarri igo diren arren, ez die denei berdin eragiten.
- Kontsumoa igotzeak ikaragarriko desberdintasuna sortu du.

Bestalde, kontsumoa etengabe igotzeak ingurumena kaltetzen du, lurra kutsatzen, ekosistema hondatzen eta baliabideak agortzen, eragiten dituen emisio eta xahutzeekin.

Industrializatutako herrialde batean jaiotako haur batek, bere bizitza osoan, herrialde pobretuetako 30 eta 50 haurrek bezainbeste kutsatuko du.

Beste modu batera kontsumitzen ikasi behar dugu, arduraz eta jakinaren gainean.

Kontsumoa garapena lortzeko baliabidea izango da soilik.



- Pertsonen gaitasuna handitzen badu eta beharrezkoa bada.
- Bestearen ongizateari modu negatiboan eragiten ez badio.
- Lurra eta Natura errespetatzen baditu.



Iparr. - Hego marrazki-bilduma. Interimón.

- Bazenekien** dutxa batean gastatzen dugun urarekin (50 litro) Etiopian lehorte-aldian egunero hiru familia bizi daitezkeela?
- Bazenekien** katetik tiratzean gastatzen ditugun 15 litro urekin, familia horietako bat bizi daitezkeela egun oso batez?
- Bazenekien** gure tangetako ura edanez gero haiek duten kutsatutako ura edatean baino arrisku gutxiago izango genukeela gaixotasunak harrapatzeko?
- Bazenekien** zuk ikasgelan egiten dituzun adina ordu behar dituela Mozambikeko neskato batek bere familiarentzat ura garraiatzen 30 km egin eta ilara luzeetan zain egon eta gero?

# Ikasi Elkartasuna



“Errefuxiatuak gero eta pobregoak dira eta biziaren eta kulturaren zentzua galtzen ari dira, esperantzaren aukerarik egon gabe”.  
(KO 34, d.3).



Ruanda Argazkia ALBOAN.

- Gatzaka armatuen ondorioetako bat da jendeak ihesi atera behar duela, familia, etxea eta ondasunak, komunitate bat, utzita... beren oinarritzko beharrak asetzeko leku baten bila.
- Baina errefuxiatuak ez dira soilik gatazken ondorio. Auzi ekonomikoek, hondamendi naturalek, goseteek edo azpiegiturako proiektu handiek ere sortzen dituzte egoera horiek.
- Kalkuluen arabera, munduan 100 milioi lagun daude atzerriratuta. Horietatik 45 milioi jazarpen, indarkeria eta heriotzatik ihes egindako errefuxiatuak edo beren bizilekua utzi dutenak dira.
- Gainerakoak pobreziatik edo ingurumenaren degradaziotik ihes egiten duten immigranteak dira.

## Errefuxiatutako biztanleriari laguntzeko adibide bat

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua (JRS), 1981ean Pedro Arrupek sortua, 40 herrialdetan dago. Errefuxiatu-barrutietan lanean dabil 13 herrialdetan eta herrialde berean bizilekuz aldatu direnekin beste 12 herrialdetan. Asilo eskatzaileei eta atxilotze-zentroeiei ere zerbitzuak ematen dizkie.

ALBOAN lankidetzan aritzen da JRSrekin hezkuntza- eta prestakuntza-proiektuetan aintzira handien eskualdeko errefuxiatu-barrutietan (E.D. Kongo, Ruanda, Burundi).




Isar - Hego marraski-bilduma. Internón.

## Pierreren eta beraren familiaren historia



Lubumbashi, Kongo. Pierreren eta beraren familia, herrialdeko gerraren ondorioz, bizilekuz aldatu eta Lubumbashin finkatu dira, beste askorekin batera. Agintariak beren etxeetara bueltatu nahi dituzte. GKE batzuek ere laguntza ukatzen hasi zaizkie. Errefuxiatuentzako Jesulagunen Zerbitzua dago haiekin eta hezkuntza eta baliabideak sortzeko gaitasuna ematen ari zaie. Herrialde aberats batzuen pasibotasuna, baita konplizitatea ere, herrialde horren dramaren kausa dira.



“Gero eta arma sofisticatuagoak eta garestiagoak ekoizten jarraitzea eskandalo onartezina da, izugarrizko lotsa, eta geroko belaunaldiek hain zuzen horren errua egotziko digute”.  
(Filadelfia, 1976).

**Egun, munduan 35 eta 40 gatazka armatu artean daude aktibo.**

**Egungo gatazketako biktimen % 90 zibilak dira**

- ◆ Eskualdeko gatazkek.
- X Gerra zibilak, gerrillak, terrorismoa.
- \* Gutxiengoak, gutxiengo erlijiosoak, nazionalismoak, etniak.
- + Errepresioa.
- ✖ Estatu-kolpeak.
- Tropak alde egitea, negoziazioak eta bake-prozesuak.



Bakerako Ikerketa Zentroa.

## Zein dira gatazken zergatiak?



Bakea eta desarma bilduma. Interimón.

- Zergatiak konplexuak eta era askotakoak dira, baina garrantzitsuenetako bat aipa dezakegu: pobrezia. Gizarte batzuetan gutxiengo bat izaten da aberastasunaren jabe eta gehiengo batzertuta egoten da. Horregatik, gizarte horietan ezegonkortasuna eta indarkeria egoteko arrisku-maila handia dago.
- Demokrazia eza, lurraldea eta baliabide naturalak lortzeko borroka, ekonomia eta abar ere gatazken sorburu izaten dira.
- Bestalde, gastu militarrek berriro hazi egin dira, urte batzuetan txikiagoak izan eta gero. Herrialde aberatsek herrialde pobreei armak saltzen segitzen dute. Estatu Batuak, Frantzia eta Erresuma Batua dira munduko arma-esportatzaile garrantzitsuenetakoak.
- Munduko gastu militarra 780.000 milioi dolarrekoa da; hau da, mundu guztiak oinarritzko zerbitzuak izateko beharko litzatekeena baino 26 aldiz handiagoa. (GNBP 98).

... mundua hankaz gora?

Oso lotura estua dago armen arautu gabeko salmentaren (hau da, ez-ofiziala) eta Afrikan egiten diren Giza Eskubideen urratzeen artean.


(Amnesty International txostena, 2000.)



Ruanda, Argakia ALBOAN.

## Hauek dira gure eskubideetako batzuk:

- **Eskubide zibilak eta politikoak** (edo 1. belaunaldikoak):  
Bizitzeko, aske izateko, segurtasunerako, berdintasunerako, kontzientzia-askatasunerako, bozkatzeko, elkartzeko eta abarrerako eskubidea.
- **Eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak** (edo 2. belaunaldikoak):  
Gosea ez pasatzeko eta hezkuntza, lana, osasun-laguntza eta abar izateko eskubidea.
- **Elkartasuneko eskubideak** (3. belaunaldikoak):  
Bakerako, garapenerako, ingurumen osasuntsua izateko eta abarrerako eskubidea.





## Giza eskubideen aldeko lanaren adibide bat

Venezuelan, Red de Apoyo por la Justicia y la Paz erakundea bi jardueramota egiten ari da giza eskubideak sustatzeko. Bat polizien eta militarren abusuen biktimei eta haien familiakoei laguntzea eta babestea da.

Bestea hiritarrak beren eskubide eta betebarren inguruan heztea eta haiei horien berri ematea da. ALBOAN-ek erakunde horrekin lankidetzan dihardu proiektu horretan.

Jendeak osotasunean garatzeko dituen aukerak handitzen baditugu eta Giza Eskubideak errespetatzea lortzen badugu, pobreei pobreziatik irteten lagunduko diegu.



“Pertsonen, taldeen eta nazio osoen oinarriko eskubideak publikoki eta askotan urratzen direla ikusten dugu. Sistema eta egitura bidegabeek hainbat eta hainbat gizakiri egoera horietara lotuta egonazten die, eta desberdintasun horiek iraunaraztea eta areagotzea bultzatzen dute. Egoera horrek gizakia gatazka bortitzetara eta suntsizaileetara bultzatzen du” (Erroma, 1972).



Ruanda, Argaskia ALBOAN.

## Zer dira Giza Eskubideak?

- Giza eskubideak pertsonok ditugun oinarriko eskubideak dira, eta berez ditugu pertsona izate hutsagatik eta duintasunagatik.
- Eskubideen deklarazioak oso garrantzitsuak dira, baina ez dute eragozten herri eta pertsona asko oraindik ere esplotatzea.
- Pobrezia eta Iparraren eta Hegoaren arteko harremanak giza eskubideen aurkako eraso larri eta nabarmenetakoak dira.

## 28. art. Giza eskubideen aldarrikapen unibertetsala

“Pertsona guztiei dagokien eskubidea da Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte-mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin”.

“Giza Eskubideek eta garapenak helburu bera dute: guztion askatasuna, ongizatea eta duintasuna zaintzea leku guztietan”. (PNUDen 2000ko txostena).







# Ikasi Elkartasuna



## Umeak lanean esplotatzea

- 250 milioi haur esplotatzen dira lanean, Iparraldean eta Hegoaldean.
- Haurren lana familiako ekonomiarako laguntza bat izan daitekeen arren, askotan eskulan merkea eta esanekoa da. Sarritan beren adinerako desegokiak diren lanak eta lanaldi luzeak egin behar izaten dituzte.


### Lan egiten duten haurren ehunekoa (10-14 urte)



Iparrá - Hegoa marrazki-biduma. Internóm.

Haurrek lana egitea negatiboa da eta haien eskubideak urratzen ditu, haurren garapen fisikoa eta psikikoa eta hezkuntza eta gizarte-garapena eragozten dituen.

### Langile diren haurren lanaldia



Iturria: Haurren egoera, UNICEF, 1997.

### Lan egiten duten haurrak babesteko adibide bat: "Manitos trabajando" Piura (Peru)




Piura, Peru Argazkia ALBOAN.

Familia pobreenek beren adin txikiko seme-alabak lanean jarri behar izaten dituzte. Lan egiten duten haurren desnutrizio-tasa % 80koa da.

"Manitos trabajando" proiektuak egoera horri heltzen dio, ondorengo jarduerekin: hezkuntzarako laguntza emanez, nutrizio-maila hobetuz, haurrarentzat eta haren familiarentzat gizarte-laguntza emanez eta osasun-laguntza eskainiz.

# Ikasi Elkartasuna



“Ikaragarria da seme-alabak behar bezala hezi ezin izatea, eta kaleko arazoan, gaixotasunen, miseriaren eraginpean jarri beharra izatea; haietako asko, haurtzaroan hilda, deitoratu behar izatea”.  
(Apostolutza sozialari buruzko gutuna. 1966).




Inda, Argokia ALBOAN.

"Munduan, 300.000 gazte baino gehiagok, arma gatasketan esku-hartzen dute eta horietatik 120.000 inguruk, Afrika kontinente guztian zehar dauden hainbat taldeko partaide dira"  
Amnesty International txostena, 2000.

- Haurrek gizarteko sektorerik ahulena eta makalena osatzen dute eta haiek pairatzen dituzte gehien pobrezia ondotako arazoak.
- Pobrezia munduko haurren arazo askoren kausa da.
- Haurraren Eskubideen Deklarazioa (1959) eta Haurren Eskubideen Konbentzioa (1989) egon arren, haur askori arazo hauek baten batek edo gehiagok eragiten die: lan-esplotazioak, abandonatzeak, malnutrizioak, hezkuntzarako aukera ezak, erraz sendatzen diren gaixotasunek, gataska armatuetan parte hartzeak... eta okerrena neskatok jasaten dute, jateko eta eskolara joateko azkenak izaten baitira.

UNICEF erakundearen arabera: munduko haurren oinarrizko beharrak betetzeko (elikadura egokia, edateko ura, oinarrizko osasun-laguntza eta lehen mailako hezkuntza) egin behar den inbertsioa 25.000 milioi dolarrekoa da.

Europarrok urtean 50.000 milioi dolar gastatzen ditugu zigarrotan. (GNBP, 1998).



Ipar - Hegoa marrazki-bilduma. Internóm.

## Haurren heriotza

(bizirik jaiotzen diren 1.000 haurretatik urtebete egiterako hiltzen direnak)

1995 - 2000

Mundua	62
Afrika	87
Latinoamerika	36
Ipar Amerika	7
Asia	57
Europa	12
Ozeania	24

Iturria: Haurren egoera, UNICEF, 1997.




Compañía de Jesús  
Loiola FROBISTIA



ALBOAN

Haurrak

# Ikasi Elkortasuna



“Hezkuntza funtsezko faktorea da pertsonen eta herrien garapenerako. Ez “gauzak egiten” ikasteagatik bakarrik, baizik eta, batez ere, autoestimua, konfiantza eta norberaren kultura estimatzeagatik”.  
(Lisboa, 1980).




Bolivia, Argzika ALBOAN.

- Gaur egun, 109 milioi haur daude eskolatik kanpo (% 22 lehen-hezkuntzan aritzeko adina dutenak).
- Horretaz gain, 850 milioi heldu analfabeto daude, eta gehienak emakumeak dira.

Munduan irakaskuntza orokortzeko, urtean 6.000 milioi dolarreko inbertsioa egin beharko litzateke. Estatu Batuetan soilik, 8.000 milioi dolar gastatzen dira kosmetikoetan. (GNBP, 98).

## Heldu analfabetoak kontinenteen arabera

842 milioi heldu analfabeto



Giza Garapeneren Txostena, NBGP, 1997.



## Felistus-en historia (Zambia)


Felistus Jere-ren eskola lur etze zati bat da. Haren arbela, lurzoruko hautsa. Irakaslea, ordainsaririk ez duen boluntario bat. Irakasleak lurzoruko hautsean zenbakiak idazten dituen bitartean, haizeak hautsa altxatzen du eta begietan sartzen dio. Felistus 6 urteko neskatokak, ez du behar bezalako hezkuntzarik, Zambiak munduko herrialde aberatsenekin duen zorragatik.

Felistusen ama, Patricia, alarguna da. Hilean 4.200 pezetako sarrera du; bi seme-alabaren elikagaia ordaintzeko iristen zaio justu, baina hiru ditu. Felistusek doako eskolara joan behar du, itsasontzi batek utzitako edukiontzi baten ondora, Lusakako -Zambiak hiriburua- lurzoru etze batera.

Bigarren hezkuntzaren urteko kostua 20.000 pezeta da haur bakoitzeko, baina haur ugari dituzten familiak nekez iristen dira hilean 5.000 pezetako sarrera edukitzera.

Phone Phatyokak, Simudinako (Zambiak hegoaldeko landa-eremua) lehen hezkuntzako irakasleak, kalkulatzen du haurren % 10ek eskola uzten duela elikagaien prezioak igotzen diren bakoitzean.

# Ikasi Elkartasuna



“Emakumeek ardura eta parte hartzeko beren leku propioa lortu behar dituzte gizartearen komunitate-bizitzan”. (Valentzia, 1973).

“Oraindik emakumearen aurkako diskriminazio sistematiakoaren ondarea geratzen zaigu, gure gizarteetako egitura ekonomikoetan, sozialetan, politikoetan, erlijiosoetan eta linguistikoetan txertatuta”. (KO 34, d.14).




India, Argazkia ALBOAN.

- Pobreziak gogorrago erasotzen die talde jakin batzuei. Munduko pobreen % 70 emakumeak dira. Horregatik hitz egiten da pobreziaren feminizazioaz.
- Emakumearen aurkako diskriminazioa unibertsal da, baina desberdintasun handiena Hegoaldean jasaten dute, Hegoaldekoa eta Emakumea izateagatik.
- Emakumeek munduan egiten den lanaren 2/3 egiten dute, baina munduko irabazien % 20 besterik ez dute jasotzen.

## Emakumeek gizonezkoek baino denbora gehiago ematen dute lanean

Indizea (gizonek lanean ematen duten denbora = 100)



Iturria: PNUDen 2000ko txostena.

Hala ere, emakumeak ezinbestekoak dira beren komunitateetan. Kasu gehienetan emakumeek ziurtatzen dute komunitateen iraupena, eta haiek sustatzen dutenak.

## Nork egiten du lan gehien?



Ipar eta Hegoaren arteko harremanei buruzko oinarritzko kontzeptuen gida. Internom.

1. Emakumea lanean.
2. Nekazaria bere emaztearen lana gainbegiratzen.
3. Agronomoa gauza bera egiten nekazaritza-ustiapenari dagokionez.
4. Soziologoa agronomoaren jokaera behatuz.
5. Antropologoa behatzaileen eta behatuen arteko harremanei begira.
6. Politologoa behatze-prozesuari begira.
7. Programa finantzatzeko duena.
8. Zergaduna, bere diruarekin zer egiten den ez dakiela.

# Ikasi Elkartasuna



## Pobreziaren arrazoiak

- Pobrezia ez da zorigaitz bat, eta ez da zoritxarretatik edo hondamendietatik bakarrik sortzen.
- Pobrezia dago herrialde eta gizarte-talde gutxiengo batek aberastasunaren mekanismoak kontrolatzen eta menderatzen dituelako: lurra, energia, merkatua, teknologia, zientzia, informazioa, kultura, armak...
- Pobreziaren aurka eraginkortasunez borroka egiteko, pobretutako komunitateak antolatu egin behar dute eta pobreziaren aurkako programak egiten eta gauzatzen parte hartu behar dute.



India. Argazki ALBOAN.

## Pobreziaren aurkako borrokaren adibide bat

### Landa- eta komunitate-garapenerako proiektua Bihar-en (India):

Uzten produkzio txikiak eta deforestazioak langabezia-maila handia eragin dute. Elikagaiak urriak dira eta edateko urrik ez dago. Komunikazio-sare txarra dute, eta, ondorioz, herri horiek ezin dituzte zerbitzu asko eskuratu. Horregatik, proiektuaren helburua herri horietako biztanleen garapen osoa eta ongizatearen hobetzea sustatzea da, hezkuntza eta prestakuntza teknikoa emanez, nekazaritzako etekinak hobetuz eta komunitatearen parte-hartzea eta antolaketa indartuz.



Ipar - Hago murrizki-bidama Inermoh.

## Itxurazko bizi-maila gizarteko kideen artean

Beharrak	Gabezieta atzera eginda
Baliabide materialak eskuratzeko ziurtasuna	Garapen-bidean dauden herrialdeetan 1.300 milioi biztanlek eguneko dolar bat baino gutxiago dute bizitzeko, trantsizio-ekonomia duten herrialdeetan % 32k eguneko lau dolar baino gutxiago eta industrializatutako herrialdeetan % 11k eguneko 14,40 dolar baino gutxiago.

Giza Garapeneri buruzko Txostena, 1998. PNUD.

**Egun pobrezia desagerraraz daiteke. Horretarako, nahikoa litzateke irabazi globalen % 1 inbertitzea. Zergatik ez da egiten?**


# Ikasi Elkartasuna



“Lurreko pertsonen bi herenek ez dute elikagairik, gelarik, arroparik, hezkuntza egokirik eta ia ezta oinarritzko eskubide horiek lortzeko aukerarik ere, baldin eta nazioarteko orden berri bat ezartzen ez bada”. (Filadelfia, 1976).  
 “Munduko leku askotan, herrialde garatuena barne, indar ekonomikoek eta sozialek milaka lagun uzten dituzte gizartearen onuretatik kanpo”. (KO 34, d.3).

## Nazioarteko desberdintasun ekonomikoak

Munduko biztanleria irabazien arabera antolatuta



Aberatsen % 20k munduko aberastasunaren % 86 du, eta pobreenen % 20k soilik % 1,3.



Lima, Peru. Argaskia ALBOAN.

### Pobreziaren definizioa:


Pobrezia gizakion oinarritzko beharrak asebetetzeko aukera eza da. Pertsona bat pobrea da guztiok gure barnean ditugun gaitasunak garatzea ahalbidetzen duten aukerak kentzen dizkiotenean.

## Beharrei eta gabeziei buruzko datu batzuk

Beharrak	Gabeziak
Ur garbia:	1300 milioi lagun ur garbirik gabe
Etxebizitza:	1000 milioi lagun etxebizitza egokirik gabe
Elikadura eta nutrizioa:	841 milioi lagun gaizki elikatuta
Osasunari arreta:	880 milioi lagun osasun-zerbitzurik gabe
Saneamendua:	2600 milioi lagun saneamendurik gabe
Energia	2000 milioi lagun elektrizitatetik gabe
Garraioa:	mila biztanleko 3 ibilgailu gutxien aurreratutako herrialdeetan, 16 garatze-bidean dauden herrialdeetan, 405 industrializatutako herrialdeetan

Giza Garapeneren Txostena, 1998. NBGP.

Egungo globalizazio-ereduak biztanleen arteko aldea handitzen du, ez herrialde aberats eta pobreen artean bakarrik, baita herrialde bakoitzeko aberatsen eta pobreen artean ere. Bazenekien Ameriketako Estatu Batuetan 40 milioi pobretik gora daudela?




Ipar – Hego marrazki-bilduma. Internóm.



pobrezia

# Ikasi Elkartasuna



Pedro Arrupe  
(Bilbo, 1907 - Roma, 1991)

“Herrialde aberatsetako gizon eta emakume askok badirudi “homo sapiens” espeziea “homo consumens” bihurtu dutela. Txikitandik kontsumitzaile gisa modelatzen gaitu jada ia arnastu ere egiten dugun airea bezala den publizitateak. Behin “homo consumens” hori egindakoan, hark aldi berean ekonomian eragiten du gero eta behar handiagoak sortuz eta justifikatuz: beharrezkoa ez dena komenigarri bihurtzen da, komenigarria beharrezko, beharrezkoa nahitaezko. “Kontsumoaren gizartea” sortzen da bere balio, jarrera eta legeez. Gizarte horretan, “askatasuna” hitzak ondasunak, zerbitzuak eta dirua mugarik gabe erabiltzea esan nahi du. “Garapenak” gehiago edukitzea esan nahi du, industrializazioa, urbanizazioa eta pertsonako diru-sarrera gehiago edukitzea. “Informazioa”, eskema honen arabera, librea da norabide jakin batetik datorenean eta helburu jakin batzuetara bultzatzen duenean. Horren guztiaren helburua merkatuak irekitzea edo zabaltzea da, irabaziak ugaritzea eta, horretarako, “global village”a “business-town” bihurtzea. Muina: nire “nia”. Gainerako gizakiak, niretzako “gauzak”. Arrazoia: irabaziak. Lege morala: eragin-kortasuna. Bitartekoak: eraginkor guztiak, ondorioak edozein direla ere”. (Montreal, 1977)

“Erabakia hartuta eduki behar dugu jatorria guztiz bidegabekoa duten irabazietan ez parte hartzekoa; baina, horrez gain geure parte-hartzea gutxitu behar dugu boteretsuenen alde antolatutako eta ekoizpen-gastuak pobreenen bizkar utzitako egitura ekonomiko eta sozialeko irabazietan”. (Valentzia, 1973).



Bizkaiko Foru  
Aldundia

Diputación Foral  
de Bizkaia




Compañía de Jesús  
Loiola Probintzia



ALBOAN

# Ikasi Elkartasuna

Pedro Arruperen esaldi batzuk "berreskuratu" ditugu. Horietako batzuk duela 25 urte baino gehiago idatzitakoak dira. Bere garaian, gizartearen diagnostiko zuzenak izan ziren. Gaur egun, ez dute indarririk galdu; aitzitik, oraindik lehen mailako indarra dira. Zoritxarrez, Arrupek salatutako errealitate batzuk ez dira batere aldatu eta batzuk larriagotu ere egin dira. Horregatik diogu Arrupe gure garaia eta gure munduaren testigu dela.



Pedro Arrupe

**1907**

- Bilbon jaio zen, Zazpikaleak-en. Pelota kalean bizi zen. Santiago katedralean bataiatu zuten.
- Medikuntza ikasi zuen Madrilan (Severo Ochoaren, medikuntzako Nobel saridunaren, ikaskide izan zen). Baztertze eta marjinazio-egoerekin han egin zuen topo lehen aldiz.

**1927**

- Jesusen Lagundian sartu zen medikuntza-ikasketak amaitu gabe.
- Belgikan, Alemanian eta AEBetan ikasi zuen. AEBetan parrokia hispaniarretan egin zuen lan. Segurtasun osoko kartzela bateko presoekin egin zuen lan AEBetan.

**1938**

- Japoniara bidali zuten. Langile-auzoetan egin zuen lan.
- Preso egon zen Japonian, espioitza-lanak egitea leporatuta.

**1945-64**

- Hiroshimako bonba atomikoaren testigu izan zen. Medikuntzako ezagupenei esker, biktimekin egin zuen lan.

**1965-80**

- Jesusen Lagundiko jenerala izan zen.
- Vatikanoko II.aren kontzilioan parte hartu zuen.
- Kezka nagusia: justizia. 1973: Jesusen Lagundiaren XXXII. Kongregazio Orokorrean (KO) bere misioa "fedea defenditzea eta justizia sustatzea" zela azaldu zuen.
- Bere jarduteko moduak arazoak sortu zizkien Elizako buruei zein Elizatik kanpokoei. Testu garrantzitsuak: Latinoamerikari buruz, AEBetako arrazismoari buruz. Mundu osoan bidaiatu zuen.
- Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua (JRS) sustatu zuen, mundu osoko errefuxiatuen beharrei erantzuteko.
- Vatikanoarekin zituen desadostasunen ondorioz, dimititzea ere pentsatu zuen.

**1981**

- Filipinetako bidaia batetik bueltan, garun-ebolbia bat izan zuen. Gaixorik, jesuitek hasitako bidea animatzen jarraitu zuen.

**1991**

- Otsailaren 5ean hil zen hamar urtez gaixo eta ohean egon ondoren.

*"Arrupe historiari irekita bizi zen, eta, historian, denbora-zeinuen. Mundua Hirugarren Munduko herrialdeetatik eta lurreko pobreen ikuspuntutik ikusiz joan zen."*

(Ignacio Ellacuría)


*"Arrupe gure garaiko Elizako handienetakoa da. Urrutira begiratzen jakin zuen norbait."*

Gustavo Gutiérrez

**Arrupe, bilbotar eta euskaldun unibertsala, amaitu dugun mendeko ohiz kanpoko lekukoa izan da. Egungo gizon gailena, sutsuki borroka egin eta maitatu zuena, ideal bati gorputz eta arima emanaz.**



# Ikasi Elkartasuna



“Gure gizartea eraldatzeko eragile izan behar dugu, egitura bidegabekoak aldatzeko aktiboki lan eginez”.  
(Valentzia, 1973. Ikasle ohien X. Kongresua).

**Ondorengo taulan ekimen ugari aipatzen dira. Horiek egin daitezke elkartasuna balio bizi bihurtzeko.**



India Argaskia ALBOAN.

**Ez ahaztu:**

## ELKARREKIN GAUZA ASKO EGIN DITZAKEGU IKUSI DUZUN GUZTIA ALDATZEKO

<p>Nazioarteko desberdintasunez eta munduko arazoez kontzientziatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Interesa izan ezazu, informa zaitetz eta treba zaitetz pobretutako herrialdeetako arazoengatik.</li> <li>• Jakin ezazu nondik datozten jaten dituzun elikagaiak, erabiltzen duzun arropa, etab.</li> <li>• Hitz egin zure lagunekin gai hauetaz.</li> <li>• Esan irakasleei ikasgelan hitz egin dezatela pobretutako herrialdeetako arazoez.</li> <li>• Dagoeneko baduzu adina “politikako” gauza horietaz pixka bat kezkatzeko.</li> </ul>
<p>Nazioarteko Elkartasunerako Erakundeei laguntzea eta haien kide izatea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eman ezazu izena GKE batean, eska iezaiezu informazioa, lagun ezazu boluntario bezala ahal baduzu.</li> <li>• Osa ezazu pobretutako herrialdeei laguntzeko talde bat ikasgelako ikaskideekin, irakasleren batekin...</li> <li>• Informa zaitetz “senidetzeak” zer diren. Agian beste herrialdeetako neska-mutikoeekin harremanetan egon zaitetzke gutun bidez.</li> </ul>
<p>Nazioarteko elkartasunerako taldeko ekintzak burutzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Animatu familiari % 0,7 eman dezan. Hitz egin etxean horri buruz!</li> <li>• Antolatu gai jakin bati buruzko kanpainaren bat irakasleekin eta gelakideekin.</li> <li>• Eman zure laguntza elkartasun-kanpainari. Bidali protesta-gutunak. Idatzi ikasgelan egunkarirako gutun bat kezkatzen zaituzten gairen bati buruz hitz eginez.</li> <li>• Parte hartu nazioarteko elkartasunerako manifestazioetan.</li> <li>• Eman zure laguntza immigrantei.</li> <li>• Kontuz zer kontsumitzen duzun. Kontsumitu arduraz eta izan kritikoa.</li> <li>• Eman zure laguntza bidezko merkataritzari.</li> <li>• Arduratu zure ekintzek dituzten ingurumen-ondorioengatik.</li> </ul>

Lan honetan oinarrituta: R.Diaz-Salazar “Redes de Solidaridad Internacional” HOAC, 1996.

## Boluntarioak: elkartasuna bizimodu gisa



Tz' olojche (Santa María Chiquimula, Guatemala). Carol, Salo andrea, Sara, Julia andrea, Cata Yat, Chico, Elena... Batzuek elkarrekin lan egiten dute beren komunitateak garatzeko. Beste batzuek –urrutitik etorritako boluntarioek– borroka horretan laguntzen diete. Boluntario izatea doakotasunean eta mesedean oinarritutako bizi-estiloa aukeratzeko da. Boluntario izatea gure bizitza pertsonala eta gure gizarte-antolaketa menderatzen saiatzen diren logika merkantilistekin eta individualistekin haustea da.



*baina... zuk zeuk zer egin dezakezu?*